

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

4089

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, Hezkuntza Saileko behin-behineko langile bat kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuz eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kargutik kentzea gauzatzen da eta hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Miren Karmele Agirreazkuenaga Zigorraga andrea Hezkuntza Saileko hezkuntza alorreko aholkulari kargutik kentzea (5267 kodea eta 2 dotazioa), beste lanpostu baterako izendatua izan delako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek 2022ko irailaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 29a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.